




ZURE LAGUNTZAREKIN EUSKARA INDARTZEN DIHARDUGU.

Hau da gure marka!



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

ERROTALDE JAUREGIA

Tfnoa : 76 03 97 BERGARA

ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

ESPOLON



Ingleseko klaseak
haur eta nagusientzat
Deitu 10etatik
12 t'erdietara

School of English 76 03 53 Tfno.ra
BERGARA
Ibargarai 31, Barrikoplaza. BERGARA

IKASLE

LIBURUDENDA - FOTOKOPIAK

Dr. Fleming 6

Tfnoa: 76 28 05

BERGARA

HURBIL

Sendagile Naturista
eta Masajista

T. Aranzadi 2, Tfnoa: 76 30 08 BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

Erredakzioa: Jon Andueza

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan

Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Mariji Laskurain, Silvia Sanz,

Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel

Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel

Elkorobereibar, Josune Iñarra eta

Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga

eta Ainhoa Bikuña

Argazki laborategia: I. G. Landa, A.

Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.

Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.

Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.

Jauregi eta Kifitu

Komikia eta marrazkiak Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

Banaketa arduraduna:

Txantxangorri-Taldeak

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



22 OSTIRALA

- **Zinea:** "Aracnofobia", 10.30etan.
- **Tren museoak:** Martxoaren 3ra arte aurkituko duzue zabalik Kultur Etxean Valentziako Llopis familiak muntatutako ferrokarrilen historiari buruzko erakusketa. Besteak beste, Alemaniako *Bonn* eta *Baden-Baden* hirietako maketa liluragarriak, eta argazki bilduma aurkituko duzue bertan.
- **Pichones:** Pol-Pol taberman, gaueko 11etan hasita, Arrasateko *Pichones* musika taldearen emanaldia.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella, Matxiategin Gaeuz: Irizar (Arrasaten).

23 LARUNBATA

- **Zinea:** "Aracnofobia", 5etan eta 7.30etan eta 10.30etan.
- **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: **Urzainki / Soroa III** (Banakako Txapelketa, 1. maila); **Errasti / Elorz** (Ba-

nakako Txapelketa, 2. kategoria); eta ekitaldiarekin bukatzeko, **Etxaniz-Errandonea / Ariznabarreta-Aldazabal II**, bikoteka.

- **Futbitoak:** Kiroldegian, goizeko 9etan hasita, kuadrila arteko txapelketako partiduak.
- **Barricada:** Txibiston, 11tan hasita, Iruñiako *Barricada* taldearen emanaldia
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Mozos, San Pedron Gaeuz: Amezua (Arrasaten).

24 IGANDEA

- **Zinea:** "Aracnofobia", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.
- **Futbitoak:** Kiroldegian, goizeko 9etan hasita, kuadrila arteko txapelketako partiduak.
- **Euskadiko Kross Txapelketa:** Almen (Eskoriatza) ikastetxeko zirkuitoan, goizeko 10etan hasita.
- **Futbola:** Agorrosinen, 4.15etan, Bergara-Ilintxa partidua.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Mozos, San Pedron Gaeuz: Ruiz (Arrasaten).

25 ASTELEHENA

- **Zinea:** "Aracnofobia", 7.30etan.
- **Goardiako farmazia:** Egunez: Camacho, Bidekur. Gaeuz: Morales (Arrasaten).

26 ASTEARTEA

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Puy, Barrenkalen. Gaeuz: Azkoaga (Arrasaten).

27 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Guallar, S. Antonion Gaeuz: Español (Arrasaten).

28 OSTEGUNA

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Estella, Matxiategin Gaeuz: Corcuera (Arrasaten).

Aukeran...

Barricada:
Londresera diska berria grabatzera Joan balno egun batzuk lehenago, Txibistoraino hurbilduko dira naparrak. Larunbatean, gaueko 11tan hasita. 1.000 pza. sarrerak aurrez erosiz gero, eta 1.200 takilan.

Tren Museoak
Erakusketa ikusgarria, Kultur Etxean, datorren ostiralera arte.

Dixula

TABERNA

Barrenkale 32,

Tfnoa: 76 44 95



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

IRAURGI
 . Ateak . Leihoak
 . Zoruak
 Kruz Gallastegi 7 Tfnoa: 76 03 96
 BERGARA

**IRUBIDE
 TABERNA**
 Bazkariak, gosariak,
 afariak, etab.
 Urteaga 9 Tfnoa: 76 25 69

HALTZARI
 FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
 SUKALDERAKO ALTZARIAK
 BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
 BERGARA

**Aldoka
 Maldoka**
 Taberna
 KRUZ GALLASTEGI
 BERGARA

**LETE
 TOLDOAK**
 Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
 Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE
 BERGARA Tfnoa: 76 12 24
 IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19



GOLFOKO GUDA

Zer da?
 Zergaitik sortu da?
 Ona al da?
 Nere ustetan eta beste askorenean ere ez da inora iristen
 Gerra izugarri bat hastea.
 Ausnarketa ugari egin ditut eta ondorioz...
 zergaitik hil hainbeste jende inozente eta gazte?
 Gerra honek jarraituko balu izadi liluragarri eta munduarentzat litzateke konta ezinezko desastrea bukatuak lirateke izadiaren kolore eta alaitasun bitxiak, eta natura eta gizakiaren lotura hertxia?
 Azken finean gure poztasun


eta bakearen bidea
 geratuko zen itxia
 Zergaitik jokatu behar dugu zibil gaixook bizitza?
 Borroka dezatela bi txakur amorratu eta zoro horiek,
 bere hezur preziatu hori lortu nahi badute.
 Baina bakarrik beharko dute gatazka hori bukatu zeren nire borondate eta laguntza aspaldi bait diet ukatu
Bergarako Almeneko Ikasleak

Gazte gera Gazte...

Eskutitz honekin hamalau urte inguruko neska-mutilok daukagun arazoa azaldu nahi dizuegu, hau da, astebukaera asko oso aspergarriak gertatzen zaizkigula ez daukagulako nora joanik. Horregatik, denbora pasatzeko leku edo lokalak nahiko genituzke, "Sala de Juegos" bat edo horrelako zerbait.

Besterik gabe agurtzen zaituztegu, esandakoa egi bihurtuko delakoan.

Mariaren Lagundia Ikastolako
8. mailakoak



• ERITETXEAK		
Osasun etxea	76 10 82	
Larrialdiak	76 12 94	
Arrasateko ospitalea	79 53 00	
• GURUTZE GORRIA		
Bergara	76 55 76	
• DYA		
Antzuola	76 62 91	
• ANBULANTZIAK		
Bergaran	76 13 59	
Gipuzkoako anbulan.	45 87 44	
• SUHILTZAILEAK		
Zubillagan	78 28 00	
• POLIZIA		
Udaltzaingoa	76 14 69	
Ertzaintza	76 53 40	
• GARRAIOAK		
P.E.S.A.	76 16 46	
Taxiak	76 19 50	
• HIRUGARREN ADINA		
Mizpirualde	76 13 68	
Aitonak	76 21 40	
• BESTELAKO ZERBITZUAK		
Udaletxea	76 39 42	
Epaitegia	76 14 72	
Kiroldegia	76 56 41	
Igerilekuak	76 20 51	
Kultur Etxea	76 44 46	
IMI	76 55 49	



Bost bergarar atxilotuta

Baita elgetar bat ere

Pasa den larunbatean Eibar, Elgeta eta Bergaran burututako operazioan, Goardia Zibilak zazpi pertsona atxilotu zituen.

Horieta bost bergararrak dira: Maria Eugenia Gracia "Maritxu", Bittor Oregi, Luis Rodriguez "Pito", Pedro Belastegi "Peito" eta Maite Guridi.

Seigarrena, Elgetan bizi den donostiarrak dugu, Bittore Aierbe hain zuzen.

Hauekin batera, Goardia Zibilak Ignazio Akaiturri atxilotu zuen. Eta larunbatean Idoia Elkorro bergararra komisaldegira eraman bazuten, egun berean gelditu zen aske kargu barik.

Madrilera eramanak

Atxilotuei, ETAKo Eibar komandoa berregitea leporatzen zaie. Goardia Zibilaren ustetan Ignazio Akaiturri "Kepa" eta M. Eugenia Gracia "Maritxu" izango lirateke *liberatuak*, eta beste bostak laguntzaileak.

Iturri polizialen arabera, komandoak ez du inolako ekintzarik burutu, bi *liberatuak* egun gutxi bait zeramatzaten inguru hauetan. Operazioan, bi pistola, munizioa, lehergailuak prestatzeko materialeak, dokumentazio faltsua, etab. aurkitu zieten.

Asteburuan detentatuak Madrilera eraman zituzten.

Jende ezaguna

Maria Eugenia Graciak 36 urte ditu. Udaleko langile izan genuen kale-garbiketa brigadan, duela hiru urte Mikel Askasibarrekin ihes egin zuen arte.

Bittor Oregik, 33 urte, Narbaizan egiten du lan. Luis Rodriguezek, 27 urte, Itsasoi aroztegiari jarduten du.

Maite Guridi, 34 urte, Aranzadi ikastolako andereñoa izan dugu 78tik. Pedro Belastegik ezkondua dago (36 urte, Udaleko kale-garbiketa brigadako langilea).

Bittore Aierbek, azkenik, 33 urte ditu, eta Elgetan egiten du lan ATS moduan.

Protestak

Larunbat, igande eta as-

teleheneko manifestaldietan jende asko bildu zen. Kaleko taberna gehienek itxi egin zuten.

Irakaskuntza Ertaineko ikasleek (Lanbide Heziketan, Institutuan eta Mariaren Lagundian) greba egin zuten astelehenean.

Amnistiaren aldeko Gestorek mozio bat aurkeztu zuten astelehenean Udaletxean, gertatutakoak gogor salatuz; ostegun arratsaldean jorratu zuen Udalak gaia Ezohizko Osoko Bilkuran.

Udaleko Enpresa Komiteak atxilotetak salatu ditu; baita Aranzadi ikastolak, LAB sindikatuak, Narbaizako langileek, eta Irakaskuntza Ertaineko ikasle eta irakasleek ere.

Elgetako Udalak, bestalde, ahobatez onartu zuen asteleheneko Plenoan HBK aurkeztutako mozioa, non, besteak beste, Amnistia osoa eta indar errepresiboen erretiratzea eskatu zen.



Maria Eugenia Gracia




Bittor Oregi



Luis Rodriguez



Maite Guridi



Pedro Belastegi



Bittore Aierbe

ARREGI
Eraikuntza
materialeak

Biltegia Teilerian Tfnoa: 76 27 93
Labegaraieta Auzoa

Carmen Gárate

Plastikoak eta narruzko gauzak
Bidekurutzeta Tfnoa: 76 13 23
BERGARA

Nahikari

Mahasterreka. 20
Teléfono. 76 57 71
20570 BERGARA



✓ Kilometroak 91 aurrera

Pasa den ostegunean, *Kilometroak 91*rako Batzorde Zuzendariak prentsaurrekoa eman zuen Aranzadi ikastolan.

Batzordea Jose M. Beitia, Jolanda Juaristi, Jose M. Larrañaga, Javier Ugarte eta Sabin Urzelaik osatuko dute. Antolaketan, berriz, Arantzazu Narbaizak jardungo du liberatu gisa.

Udaletxean ibilbideari buruz jasotako eritzien eraginez, zirkuitoa San Martzialeraino luzatzea aztertzen ari dira. Logotipoa aukeratzeko lehiaketaren oinarriak ere azaldu zituzten. Lanak martxoaren 5a baino lehen entregatu beharko dira Aranzadi ikastolan. Teknika librez, Dina 4 tamainuan, hiru koloretan (urdira derrigorrez), eta KILOMETROAK 91 eta BERGARA hitzak erabiliz aurkeztu beharko dira.

Ospakizunarekin lotuta, esan bi komisioren buru izango dela Mariaren Lagundia ikastola, Aranzadi ikastolaren lagunzaile moduan inkorporatu delarik antolaketan. Azkenik, herritar guztiak gonbidatu zituzten lan-taldeetan sartzeko hasteko.

□ Autobiaren alde

Bizpahiru autobus irten ziren Bergaratik Donostiara, larunbatean Institutuzioek Leizarango autobieren alde antolatutako manifestaldira.

□ Autobiaren aurka

Astebeteko gose-greba burutuko dute larunbatean Bergarako lau gaztek, Leizarango autobieren arazoan elkarrizketaren bidea aldarrikatzeko.

Larunbatean, bestalde, 3retan autobusak irtengo dira frontoitik, *Lurraldeak* Donostian antolatuko duen manifestaldira.

□ Gamak

Gamak-ek antolatuta, martxoaren 4tik 15era luzatuko da automata programablei buruzko ikastaroa. Interesatuak, deitu 76 56 85 tfno.ra.

□ Ski irteera

Pol-Polekoak, Aste Santuan Tignes, Valdisier eta Alpeetara eskiatzera joateko bidaia prestatzen ari dira. Deitu 764851era.

KIUBen datuak

Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak, 1990 urtean zehar burututako ekintzen berri eman du. 202 aktuzio egin ziren, aurreko urtean baino 91 gehiago.

Kapitulu garrantzitsuenak, herritarren kontsultak; 157 galdera luzatu zituzten. Gairik jorratuena jakibego partikularra, etxebizitzaren alokairua, zerbitzuak (banketxeak, aseguruak, gremioak, telefonoa...) eta elektragailuen konponketari buruzkoak izan genituen.

Kontsultatu bai, baina antza denez erreklamazioak aurkezterakoan bergararrak ez ziren animatu.

Guztira, 42 pertsonak erreklamatu zuten; gehienbat gremio, aseguru, telefono eta gas instalazioak zirela eta.

KIUBek, azkenik, kotxeen debaldeko azterketa bultzatu, eta hainbat informazio-boletín kaleratu zituen.

Beheko Taberna


Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



AE

ELKORO ANTENAK



• TB Satellite bidez

• Telebanaketa

ARRASATE

Tfnoa: 79 18 86

Udalarekin harremanak euskaraz

Euskara Batzordeak proposatuta, laster ekingo zaio Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarren zentsua egiteari.

Martxoan herriko padroia berritzu behar dela aprobetxatuz, bergararrei beraien eta Udalaren arteko harremanak euskara hutsean izatea nahi duten galdetuko zaie. Baiezkoa ematen dutenei, Udaltzeko oharrak gure hizkuntzan bialduko zaizkie bakarrik.

Plangintza hau, halere, Udal hauteskundeen ondoren jarriko da martxan seguraski.

Egitasmoaren barruan, bestalde, Udalak bertako langileak euskalduntzen dihardu.

Dagoeneko hogeitahiru ari dira Euskaltegian alfabetatze klaseak jasotzen, laster beste bost gehituko zaizkielarik.

□ Mahaingurua

Jardunek antolatuta, asteartean Golko Pertsikoko egoerari buruzko mahaingurua egingo da Kultur Etxean.

□ Tenis ikastaroa

Asteartean hasiko da Labegaraieta Kirolegian Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako Tenis ikastaroa. Interesatuak, jo 763942 tfno.ra astelehen eguerdia baino lehen.

□ Mendi irteera

Gorla eta Pol-Pol mendizale elkarteek irteera antolatu dute martxoaren 3rako. Izen emateak, Pol-Pol tabernan bertan.

□ Korrika 91

Korrika martxoaren 22an pasako da Bergaratik, goizeko 11k inguruan. Hasi entrenatzen, beraz!

□ Euskadiko itzulia

Euskadiko Txirrindulari itzulia Elgetan amaituko da apirilaren 12an, Eloxorixon hasitako erloju kontrako probarekin..



✓ BARRICADA Taldea Txibiston

Txantreako *Barricada* taldea Estatu Espainoleko onena ez bada, onenatarikoa dugu. Ziur. Kanta bakoitzean Rock & Roll ederra isladatzen dute; erraza eta ona, horra hor sekretua.

Zazpigarren LPa kalean, musikari gutxiak erakutsi du, gainera, napparren koherentzia. Nahiz eta CBS multinazionalarekin kontratupean egon, duela hamar urte inguru aukeratutako eskema berdintsuak erabiltzen dituzte; eta talde askotxo aldaketaren bidean galtzen den garaian, benetan eskertzekoa da hori.

Ez dugu hemen deskubrituko, bestalde, Drogas, Bony, Alfredo eta Pacok zuzeneko emanaldietarako duten gaitasun aparta; ikusleak, pil-pilean, entregatuta, letra bakoitza gogoz koreatzen. Horixe litzateke *Barricada*ren kontzertu baten deskribapenik aproposena (are eta gehiago Euskal Herrian jotzen dutenean).

Profesionalak dira. Ondo kobratzen dute emanaldi bakoitza, baina seguruenik, merezi ere bai. Larunbat honetan, 10etan, Txibiston. Apostu egingo genuke ez dietela zaletuei hutsik egingo!

URRATS

∞ Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

GISASOLA BURDINDEGIA

" Erratzu "

Pedro Deuna 8,

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



LARRAÑAGA

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Artetale 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA

Bergara eta trenak

Urte askotako maitasun baten historia

Egun hauetan, eta Kultur Etxean zabalik dagoen tren erakusketa medio, bergararrok ferrokarrilarekin urte askotan zehar eukitako harreman sendoa etorri zaigu burura.

Ahalik eta datu gehien bildu ditugu aspaldiko garai haiei buruz, gure historiaren zati garrantzitsua izan zena nolabait berreskuratu nahian.

Oroimenean galdu zaizkigu trenak Bergara eta orohar bailara guztia zeharkatzen zitueneko egunak.

Ferrocarril Vasco-Navarro Gasteiz-Mekolalde ibilbidea betetzen zuen orduan. *Vascongadoa*, berriz, Maltzagatik Zumarragara aritzen zen, gora eta behera.


1968ko urtarilaren leian, Espainiako Garraiobide Ministraritzak uko egin zion *Vasco Navarro*aren esplotazioarekin jarraitzeari. Arrazoi politikoren bat ere egon omen zen tartean, baina funtsean, urteroko 30 milioi pzta. inguruko galerak zirela eta

hartu zen erabakia. Orduko 30 milioi!

Gure bailarako Udalek biziki protestatu zuten, trenak Gasteiz-Mekolalde ibilbidea betetzen segitu behar zuelakoan. Ministraritzak, ordea, ez zuen eskaria onartu.

1968ko urtariletik aurrera, Celestino Idarretak sortutako *La Vergaresa* autobus enpresak lanari ekin zion; eta agian horren eraginez, hamarkadaren bukaeran *Vascongadoa* ere Maltzaga-Zumarraga linea itxi zuen.

Geltokiak eta trenbide zati batzuk gelditu zaizkigu soilik egun haien oroigarri.



Lehenik, Vascongado-a

1885. urtean, *Ferrocarriles Vascongados* delakoak Durango-Zumarraga linea egiteari ekin zion. 1899an bukatu zuten lan hori.

XX. mendearekin batera heldu zen, beraz, lehenengo trenak Bergarara. Plaentxi eta Osintxutik Mekolaldera iristen zen. Handik, Goiko Geltokira sartu; eta bidaiaria edota merkantziak jaso ondoren, Antzuolarantz jotzen zuten, Zumarragara bidean.

Vascongadoa ondo ibili zen ekonomikoki. Garai hartan jende ugari erabiltzen zuten trenak (ez zegoen kotxerik, ez eta autobusik ere). Eta hori gutxi balitz, Faustino Orbegozo edo Patricio Etxebarria bezalako enpresa indartsuek sarritan erabiltzen zuten zerbitzua (Orbegozok Pasaiatik txarra ekartzeko, eta Etxebarriak, aldiz, Bilbotik mineraleak

jasotzeko).

Egunean lau aldiz pasatzen zen trenak alde batera, eta lau bestera.

Ikatz-indarrez hornitutako lokomotorekin jardun zuten, 1928an sare guztia elektrifikatu arte.

Ez zen inoiz istripu larriegirik gertatu. Akaso, 1893an Antzuolan gertatutako deskarrilamendua aipatu behar (nahiz eta hildakorik ez zen egon).

Bitxikeria bat; trenak 42 minutu inguru ematen zituen Bergaratik Zumarragara. Eta izan ere, bazuen etsai amorratu bat: Deskargako gaina. Eguraldi txarra zegoenean izugarri kostatzen omen ziztaion hura igotzea, eta sarritan utzi izan zituen bagoiak bidean, berriz bila itzultzeko.

Gero, Vasco Navarra

The Anglo Vasco Navarro Ltd. enpresa 1882an sortu

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale 21 BERGARA

FESA

Garraioak

Herrian eta Estatuan zehar mota guztietako garraioak.

Tfnoa: 76 21 38 - 76 42 22 BERGARA





XX. mende hasiera. Ikatz-indarreko lokomotoren garaia Bergaran.

zen. 1897an, ordea, eta diru aldetik gaizki zebilelako, esplotazioa Estatuaren esku gelditu zen.

1914ean ekin zitzaion Gatzaga-Arrasate ibilbidea eraikitzeari. Azkenean Mekolalderaino burutu zuten (San Prudentzión Oñatirako adarra eraikiz), eta 1919an bukatu.

San Prudentzio, Labegaraia, Vergara Villa edo Beheko Estazioa, eta Mekolalden kokatzen ziren geltokiak (azken hau *Vascongado*arekin transbordoak egiteko erabiltzen zelarik).

Ikatz lokomotorak erabili ziren, 1938an sare elektrifikatua inaguratu arte.

Bidaiarientzako, bost aldiz irtetzen zen tren Mekoalaldetik, eta beste bost aldiz Gasteizetik honantz.

Horrez gain, beste bik egiten zuten joan-etorria merkantziak beteta; *Altos Hornos* enpresak erabiltzen zuten gehienbat aukera hori.

Beste bitxikeria bat; ordu bat eta berrogei minutu inguru behar izaten ziren Meko-

laldetik Arabako hiriburura.

Traba gogorrera, Gatzaga. Horren lekuko, 1961eko urriaren 31n bertan gertatutako istripua (*Vasco Navarro*aren historian latzena); Jose Antonio López, Fidel Gómez Antolín, eta honen seme Fidel Gómez San Miguel hil, eta beste sei lagun zaurituta suertatu ziren.

Errepideak nagusitu

60. hamarkadan, izugarri ugaldu ziren kotxeak. Tren bidaiarien kopuruak behera egin zuen.

Eta ez hori bakarrik. Errepidea nagusi, Orbegozo, Etxebarria edota *Altos Hornos* enpresak kamioi bidezko garraioari ekin zioten burubelarri.

Arazoi batzuk zein besteak, trenak ez zuten 70. hamarkadaren muga pasatu. Eta oroitzapen askotxo eraman zituen eskutik. Tartean, Geltokiko Nagusi, makinista, barrera-zain, gia, kobratzaile, eta antzeko lanbideak.

Abixada Haundiko Trena?

Entzun izan da Y famatua Bergaratik pasako dela etorkizunean. Duela aste batzuk, hain zuzen, Jaurlaritzako teknikariak Labegaraia eta

San Kristobal inguruetan ibili ziren ikerketak egiten.

Abixada Haundiko Trenari buruz hitzegitea, ordea, espekulazio hutsa da.

Etorkizunaren zain egon behar!

Azkenengo txartela

Gau hartan, urteko azken gau hartan, *Vasco Navarro*ko langileok ikusitakoa ezin sinistuz geratu ginen. Ezin sinistuz tren hark ez zituela berriro burdinezko bide haiek zeharkatuko, ez zituela gehiago bailarako gizon eta emakumeak hara-hona eramango. Ezin genuen sinistu, hurrengo egunean ez bazen ere, laster bueltatuko ez zenik. Eta gure ustez, langileok ez ezik herritarrek ere gauza bera pentsatu zuten, azken aldiz irten zenean banaka batzuk baino ez bait ziren etorri estaziora, hainbat bider erabili zuten tren hari agur egitera. Baina egun hartakoa, sinistea kostata ere, itzulerarik gabeko alde egitea izan zen. 1967ko abenduaren 31, 20.08ak ziren.

Gasteizera joaten zen azken trenaren, halaberhurrez urtearen izen bera zuena: 67 zenbakia. Berandulago, 21.23etan, 64 zenbakia zuen tren iritsiko zen, Arabako hiriburuan irten eta Bergaran gelditzen zena. Guk, ferrobixarixuok *morir* aditza erabiliko genuen, hitz hori erabiltzen bait genuen tren batek geltoki batetik aurrera ez zuela jarraitzen adierazteko. Eta benetan, egun hartan *morir* hitzak bazuen zentzurik, han *hil* bait zen betiko gure tren.


Urteetan lagun izan genuenok, badugu tren haren oroitzapenik asko. Eta, beharbada, nahiko da oroitzapenok gure artera ekartzeko, aldameneko txartel honi begiratzea. Beheko estazioan, *Vergara Villan* emandako azkenengo txartela da, 3. klasekoa (1. eta 3. klasekoak zeuden), bost pezeta ordainduta bidaiaria Bergaratik Oñatira eramaten zuena San Prudentzión trenez aldatu eta gero.

Azkeldean, tramankulu bitxi batez markatuta, eguna eta trenaren zenbakia ageri dira, eta Bergarako geltokiko buru egiten zuenak hala eskatuta, baita San Prudentzio-Oñati tramuko interbentore Bernabe Biain (G.B.) oñatiarraren firma ere.

Azken txartela... Zenbat galduko ote ziren gero alferrik...

Marcial Moreno

(Vasco Navarroko langile-ohia)



GIARTZU

(M. Isabel Hurtado)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupeazioa

Errekuperagailu elektrikoa

Korronte kapazitatiiboak

Boni Laskurain 3, Etxabea

Estetika Tratamenduak

Larruazal garbiketak

Kosmetika Espezializatua

Tfnoa: 76 35 71 BERGARA

GIPUZKOA
HORTZ-KLINIKA


- . ENDODONTZIA
- . HORTZ EZARKETA
- . HORTZ - ESTETIKA
- . PROTESI FJOAK ETA MUGIKORRAK
- . ZIRUGIA
- . ORTODONTZIA
- . ODONTOLOGIA OROKORRA

Marisa Porta Peña Dok.a
Gabriela Porta Peña Dok.a
Pablo José Mármol Dok.
ODONTOLOGOAK

ARRASATE ZUMARRAGA
Iturriotz 7 bis- behea Soraluze,1
Tfnoa: 79 73 88 Tfnoa: 72 46 47

BERGARA
Simon Arrieta 3
Tfnoa: 76 38 54

Zer iruditzen zaizu trena Bergaratik kendu izana?



Bernardino Martinez
70 urte

Ez zitzaidan batere ondo iruditu.
Herrian zenbat eta zerbitzu publiko gehigo eduki, orduan eta hobeto.




Mari Carmen Quintana
33 urte

Ez dut gogoratzen trena zegoeneko garaia, baina kendu izan ez balute, hobe.



Mirari Lazkano
26 urte

Nere ustez gaur ere zerbitzu galanta eskainiko luke. Autobusa erabiltzen dut, baina trena egongo balitz seguruenik hura erabiliko nuke.



Luis Larrañaga
58 urte.

Nik faltan botatzen dut. Herritik pasatzia ez zitzaidan ondo iruditzen, paso-nibelak eta daukaten arriskuagatik. Autobusek ere hor daude. Baina...

**ETXE-
-AUNDI**

Negozio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

M U G I C A

BURDINDEGIA

Bidekurutzeta 8 Tfnoa: 76 28 67 **BERGARA**

TOKI-EDER

T a b e r n a

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 7651 84 **BERGARA**

LASAGABASTER JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabala

Gabiria 9, Tfnoa: 79 27 27 - 79 13 55 **ARRASATE**

Portadako argazkian afrikako basamorturaino heldu garela frogatzen badugu, Jaca aldeko elurretan ere ez zen nolana hikoia izan *Berrigarak* lortutako arrakasta.

Aldameneko argazkian ikastolako 8. mailako taldea ikusten duzue. Etxetik urrin egonda, hor ibili ziren herriko albisteen berri jakin guran, guztiak gure astekaria irakurtzeko borroka bizian.

10. zenbakia bete dugun une honetan, nahiz eguzkia nahiz elurra, aurrera jarraitzeko konpromezuari eusten diogu. Ostiralero zure buzoian!



Zertan dihardute ba?

ELISABET PAYROS

Kultur Etxean zabaldu berri den tren erakusketan, bisitariari nahi beste esplikazio ematen dihardu. 25 urte, bergararra. Albaitari ikasketak egin zituen, eta Oñatiko aberehiltegia egin du lan.



AMAIA ZABALETA

Domekan Anoetan jokatu-tako kadete mailako Euskadiko Txapelketan, Antzuola Kirol Elkar-teko atletak urrezko domina eskuratu zuen luzera jauzian, 5 metro eta 18 zentimetroko saltuaz. 60 metroko Gipuzkoako Txapelketan, berriz, 3. izan genuen.



JULEN GARITANO

Antzuolara, 2. izan zen Anoetan jokatu-tako Euskadiko 3 km-tako marxa Txapelketan.



Aste bat darama Kultur Etxean lanean Usurbilgo Izaskun Egileta Arribillagak.

Udalak liburu zain plaza betetzeko deialdia luzatu, eta berrogei lagun artean Izaskunek eskuratu zuen postua.

27 urte ditu. Euskarako klaseak eman ditu Usurbilgo AEKn, eta 9 hilabetez egon da bere herriko liburutegian lanean.

Sinatu berri duen kontratuak sei hilabeteko iraupena izango du.

Ikuskizun aparta izan genuen ostiralean Mariaren Lagundiko aretoan. Tanttaka antzerki taldeak "Kontuz, maite zaitut" antzezlan musikala eskaini zuen. Jende gehiegirik ez, baina joan zirenak gustora gelditu zirela aipatu behar.

Aldameneko argazkian, Tanttaka taldeko Mireia Gabilondo bergararra ikusten duzue (igandean, gainera, ETB 2ko *Mira que sois* saiora gonbidatu zuten)



iRUDI
Erlojutegia
Bitxitegia
San Pedro 11
Tfnoa: 76 51 65

Mugica
GOZOTEGIA
Artekale 3 Tfnoa: 76 51 65
BERGARA

ERREKI
ERRETEGIA
Txitxarro eta saiheski jana
astebukaeretan
Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51 BERGARA

Hau dok barreguria

- Bueno hi, hau eztok jiria. Eran eta eran eta sekula pagau ez. Noiz pagau bia dittuk zorrak? -Tabernarixak hasarre.

- Apuntaitzak.
- Apuntau, apuntau..., noiz arte jarraitu bia juat apuntatzen?
- Nik "fuego" esan arte.

Nik entzutia dotenez medikuak esate ei juek ardauek bizitza mozten dabela.

- Medikuek arrazoia



jaukek. Konturatuta najakok ni eran bareko egunak luzeaguak direla.

- Bueno hi, hau eztok martxia, eran eta eran eta

sekula pagau ez. Noiz pagau bia dittuk zorrak?

- Hau be bajuau? Hola jartzen bahaiz bezerorik onena galduko dok!

Gerra aurreko bi sozialista zaharrek barriketan ziharduen politikia gora eta politikia beera.

- Oiñ arte danok ibilli gaittuk alkarren kontra, baiña ointxe bagoiazek batuaz. Abadiak pe sozialismuan alde berbetan hasitta jarek eta.

- Bueno, bueno, hori ezin dokegixa izan. Gu bizi garen artian etxuau holakoik ezautuko.

- Baietz gizona. Juan XXIII.ak "Pacem in Terris" en esaten dabena betetzen bajuek, guregana jatozek. Oiñ arte hor ibilli dittuk gu eskumara eruan nahixan eta hor nun datozen oiñ erak ezkertera.

- Ba hara Benitto, horrek ezkertera bajatozek ni eskumara najoiak.

J.M. Elexpuru

Bergaraz diharduten euskarazko aipamen zaharrak (1)

Euskal testuei dagokionez, Erdi Aroko hondarrean Ahaide Nagusien arteko burrukak sortutako kanta zaharrek osatzen dute Deba-Garaiaren unerik jorienetakoa. Horien artean interesgarrietakoa 1448an, oinaztarrak hiri barruan zeudela, ganboarrek Arrasate erre zutenekoa dugu. Hara nolako madarikazio bortitza botatzen den Bergara eta beste batzuentzat kantaren sarreran.

*Gal didila Unzueta eta Bergara,
Zaldibarrek bere partea debala,
Aramaio, suak erre azala (...)*

Aurreragoko beste ahapaldi batetan bergararrek erreketan izan zuten parte-hartzea gogoratzen zaigu:

*Argi izarrak urten dau
Zeruan goian ostantzean;
Bergararrok asi dira
Traxioe baten asmatzean,
Euroen artean dioela:
"Erre dezagun Mondragoe
Lasterreon sar gaitzean" (...)*

Geroxeago azaltzen den *jaun gaztea* ere Ozaetako Juan Perez omen zen, Bergarako leinu zaharrenetako semea. Eta leinu zaharrek jarraituz, esan dezagun gerora Bergararekin zerikusi handia izango duen handiki-familia baten berri ematen digula XV. mendeko beste kanta labur batek (1450):

*Berba orren berba gazia,
Berba orri nai ez dakiola balia,
Dardoak egin arren bere aldia,
Olaso da ene egoteko aulkia.*

1598ko "Refranes y Sentencias" en, berriz, *Olaso, gutxi batzuk i laso* ("hi bezalako", alegia) irakur daiteke.

Jerardo Elortza

ANTIA HARATEGIA

URDAIEGIA


Txahal, idi, txerri bildots, unxi baserriko oilaskoak

Matxiategi Tfnoa: 76 15 09 BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea
Tfnoa: 76 43 07



POL-POL TABERNA

Tfoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Pedro Salegi Osa

Harria lantzearen artea

Pedro Salegi Osa Mutrikun jalo zen duela 54 urte. Hogelabat daramatza Bergaran, Vergaresa marmolerixan lanean.

Gizon gutxi bezala ezagutzen du harrijasotzearen mundua. Sarritan ikusi izan dugu Iñaki Perurenaren alboan, Leitzako Indartsuak bere saioak egiten dituenean.

Horrez gain, Pedro Salegi Euskal Herri osoan harrijasotzaileentzako harriak lantzen diharduen pertsona bakarra dugu. Perurena, Migeltxo Saralegi, Goenatxo eta abarrek gero leporaino horren erraz altxatzen dituzten harritzarrak lantzen diharduen bakarra...

"Harrijasotzaile guztiek erabiltzen dituzten harriak hementxe egiten ditugu, Bergaran. Ni aspaldi sartu nintzen saltsa honetan, hamabost urte nituenen. Gero, duela berrogei urte inguru harriak egiteari ekin nion. Eta tira, nik neuk ez ditut denak egin, nerekin lanean daudenek lagundu didate; baina dakidala behintzat ez dira beste inon lantzen".

Kirol honek gaur egun

bizi duen egoerari buruz galdetu diogu. "Harrijasotzea Gipuzkoa eta Bizkaiari lotua egon da historian zehar, eta bi probintzi hauetan tinko jarraitzen du zaletasunak. Nafarroan ia ez ziren hasi oraintsu arte, Perurena etorri arte. Eta begira, hor segitzen du Iñakik, eta hor dator atzetik Saralegi. Araba aldean ere ari da sortzen zirrara; ez hainbeste, baina ari da sortzen...".

Zer egiten ote du mutrikuar batek Bergaran, harriak egiten. "Beno, ez nintzen harriak egitera etorri, marmolerixia jartzera baizik. Kanposantuko lanak, fatxadak, eta antzeko gauzak egiteko. Eta bien bitartean harriak egiten jarraitu nuen".

Egin bakarrik, ala jaso ere bai? "Lehen altxatu izan nuen, baina dagoeneko ez".

Zenbat kilo eramán dituzu lepora? "150en bat izango ziren".

Zer harri mota erabiltzen dituzu? "Hiru klase erabiltzen ditugu. Bata, bertako harria deitzen duguna, kare-haitza, Debako Lastorkuatik ekarria. Bestea, Zumarragako errekatik ateratako otita beltza. Azken hau geroz eta urriagoa da, ordea, eta orain Usurbiletik granittoa ekartzen hasiak gara".

Exijenteak al dira harrijasotzaileak? "Lehen gehiago, orain ez hainbeste. Lehen jokua zuzenago egiten zen, bi pertsonen arteko norgehiagoka, apustua. Pikearen eraginez edo, prozesuaren gain-gainean egoten ziren, harriari ahalik eta maña gehien harrapatzeko.

Oraingoak arduratzen dira, baina beste modu batera.

Nola moldeatzen da harri bat, hau da, zeren arabera banatzen da pisua? "Pisua goian kargatzen zaio, behetik heldu eta gero gerrian errazago bueltatzeko. Dena den, gehiegi jarriz gero zaila izaten da leporaino eramatea. Horra hor ba, balantzea aurkitu behar".

Zer kolore ikusten zaio harrijasotzearen etorkizunari? "Begira. Gazte asko

hasten da, baina aspertu ere bai. Mundu honetan maila dementea lortzeko asko saiatu beharra dago. Ez du balio 'nik indarra daukat, eta aproba batzuk egin, eta hilabete barru kilo mordoa jasoko ditut' pentsatzeak. Egin behar dena, segi eta segi. Eta gogorra da hori. Gainera, hemen ez dago diru askorik... baina beno, nik uste sortuko direla biharko eguneko indartsuak!".

Zilegi al da harri-egitea eta eskultura konparatzea? "Orain ez hainbeste; lehen bai. Lehen dena eskuz egiten zen. Ttapa-ttapa-ttapa. Eta eskuak jartzeko lekuei, adibidez, harrijasotzailearen behatzen forma ematen zitzairen. Bazuen eskulturarekin antz apur bat. Gaur egun, berriz, gehiena makinaz gastatzen dugu".

Bukatzeko, Pedro, zer esango zenuke Iñaki Perurenari buruz? "Hasieran, hamabost urterekin hasi zenean, nik aholkuak ematen nizkion mutil-koxkor hari. Hogei urte pasatu dira. Iñakik 34 ditu gaur egun. Oso gizon argia da, eta seguruenik beste inork baino gehiago ikasi du mundu honi buruz. Baita harriari berri buruz ere. Perurenaren ideia izan zen harrien heldutokiak gorago jartzea, adibidez, eta ezin ukatu aldaketa probetxugarria izan zela. Bestalde, ez da denbora asko Donostian atzera gelditu zela. Arazo fisikoak euki ditu, eta baju xamar ibili da moralez. Baina gora egingo du berriro. Sasoi ederra dauka, eta apostu egingo nuke ez duela bere gailurra jo".

Aditu baten hitzak dira.

IGERILEKUKO

TABERNA

**EGUNEKO MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK**

Tfnoa: 76 53 55



Raixabal
Gozotegia

Artekale 9, Tfnoa: 76 11 83

Bidekurutzeta 20 / 22 Tfnoa: 76 12 19



Bergarak izan duen urbanoko txoferrik famatuenetako bat jubilatuta zaigun une honetan beste "urbano" batekin gatoz: aspalditxo Garaje Urbanok ekarri zuen kotxe famatu harekin. Jabearen abizenetik zetorkion Garajeari izena. Urbano jauna kanpotik etorria omen zen, oso kotxezalea, karreretako automobilak eta, ibiltzen zituena. Halako batean erretratuan ikusten duzuen autokar txiki hau ekarri omen zuen eta ikaragarritzko azetaziñoa izan. Ez zuen lineako zerbitzurik eskaintzen, eskursioetarako erabiltzen zuen bakarrik baina hala ere ez zitzaion lanik falta izan. Makinatxo bat izango dira oraindik ere bizi direnak, auto honetan erretratu ateratakoak.

Oraingo argazki hau Gernikan aterata dago 1.926ko abuztuaren 15ean eta bertan daudenak garai hartako Aran-

doneko abertzale-talde famatu hartako batzuk dira.

Automobilaren ondoan aurrekaldean dagoena, gernikar bat da, joandakoren baten senitartekoa. Barruan daudenak:

Ezkerretik eskumara automobilaren aurreko jarlekuan: Jose M. Barrenetxea-Arando (Arando taberna famatuko jabea), Urbano txoferra, Meltxor Espinosa eta Periko Unanue (Txanpon).

Bigarren jarlekuan: Adrian Zelaia, Meltxor Egileor, Estanis Etxebarria eta Jose Luis Galarreta.

Hirugarren jarlekuan: Periko Barrenetxea-Arando, Juan Gallastegi, Leonardo Amenabar eta Maurizio Agirre.

Atzeko jarlekuan, zutik: Patxi Agirrezabal, Elias Unanue (Txanpon), Emilio Gutierrez, Esteban Larrañaga eta Casimiro Jauregi.

*Estepan Plazaola
Berriemailea: Juste Amenabar*

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
Kafea kremarekin

Irala z / g Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisua salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 8615-55, edo 862301.
- Pisua behar dut alki-lerrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Etxe handia erosi edo alokatu nahi dugu. Markea bada, hobeto. 764507.
- Baserria salgai Berga-

ratik 3 km.ra. 770081, 10etatik 1etara eta 6etatik 8etara.

- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Lokal komertziala alkilatzen da bolun. Tfnoa: 763797.
- Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Andereño batek pisu amueblatua behar du urte guztirako. Erdikaldean badago, hobe. Deitu gaez 760371 Tfno.ra.
- Pisua salgai; nahi izaenez gero, garaje eta guzti. 763911.

LANA

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Emakume euskalduna behar da, goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 763157.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

- Ihauteri asteartean Poligonoko Ikastola inguruan argazki kamara bat galdu nuen. Zerbait badakizu, deitu mesedez telefono honetara: 763270.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493
- Ikasi josten zure astialdian. 762858
- 20,50 m2ko garajea alkilatzen da Burdifiaten. Egin berria. 764003
- 55 m2ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

Hildakoak

Aste osasuntsua Bergaran.

Ostegun eguerdira arte ez zen hildakorik egon.

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41
BERGARA

BRIKOLAIA AUTOMOZIOA

Turismoak, kamioiak, etab.

Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA

MAKAILO

Makailo **ETXEA**
kazuelak

gertatzen ditugu

Ibargarai 15

KIÑU

MÁRTXOTIK AURRERA BARRENKALE 35EAN



HITZALDIA

Gaia: ZER DAKIGU GOLKOKO GERRAZ?

Hizlariak: - JOXEAN LIZARRIBAR

(Golkoko berri bertatik ezagutzeko aukera izan duen industri gizona).

- FELIPE ETXEBARRIA

(Kazetaria. ETBko informazio zerbitzuetakoa)

Moderatzailea: JUAN LUIS BIKUÑA

Otsailaren 26an, Kultur Etxean. Arratsaldeko 7 1/2etan